EUSKO LEGEBILTZARRA
PARLAMENTO VASCO

BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA

EUSKO LEGEBILTZARRAREN ERAIKIN ETA GARAJEAK ENERGIA ELEKTRIKOAZ HORNITZEA (4 hilabete)

ESP.: ELPV-500-22

Becerro de Bengoa • 01005 Vitoria – Gasteiz
Tel.: 945 00 40 00 • Fax: 945 13 54 06 • www.legebiltzarra.eus

BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA

EUSKO LEGEBILTZARRAREN ERAIKIN ETA GARAJEAK ENERGIA ELEKTRIKOAZ HORNITZEA

1 XEDEA 1

2 LOTEEN DESKRIBAPENA 1

3 HORNIDURAREN IRISMENA 2

3.1 1. LOTEA: GOI-TENTSIOKO HORNIDURA 3
3.2 2. LOTEA: BEHE-TENTSIOKO HORNIDURA 4

4 KONTRATUAREN EPEAK 4

5 HORNITU BEHARREKO ENERGIA ETA OINARRIZKO LIZITAZIO-AURREKONTUA 5

5.1 1. LOTEA 5
5.2 2. LOTEA 5
5.3 LEHIAKETA, GUZTIRA 5

6 EMAN BEHARREKO BESTE ZERBITZU BATZUK 6

6.1 KONTRATUAREN ARDURADUNA 6
6.2 HIRUGARRENAK SAREETARA SARTZEKO KONTRATUAK 6
6.3 KONTSUMOAK ETA KOSTUAK WEB BIDEZ ESKURATZEA. 6
6.4 ARAUTUTAKO KONTZEPTUAK ALDATZEARI BURUZKO INFORMAZIOA 7

7 PROPOSAMENAK AURKEZTEA 7

7.1 1. DOKUMENTUA: PREZIOAK 7
7.2 2. DOKUMENTUA: LOTE BAKOITZAREN GUZTIZKO ZENBATEKOAREN KALKULUA 8

8 ESKAINTZEN BALORAZIOA 9

8.1 1. LOTEA 9
8.2 2. LOTEA 10

9 INGURUMEN-BALDINTZA KONTRATUA EGIKARITZEKO 11

9.1 ENERGIAREN JATORRIAREN BERMEA 11

10 HILEKO FAKTURAZIOA ETA TXOSTENAK 11

10.1 HILEKO FAKTURA 11
10.2 HILEKO TXOSTENA 12

11 PRESTAZIOAREN ORDAINKETA 12

A ERANSKINA: 1.LOTEKO KONTSUMOAK
B ERANSKINA: 2. LOTEKO KONTSUMOAK

1 XEDEA

Agiri honek, klausula administratiboen agiriarekin batera, zehazten ditu Eusko Legebiltzarraren titulartasuneko eraikin eta garajeetarako energia elektrikoaren goi-tentsio eta behe-tentsioko horniduraren kontratazioa arautuko duten baldintza teknikoak, kontratua esleitzen denetik 2022ko ekainaren 30era bitarteko epean (4 hilabete, gutxi gorabehera).

Kontratu honen xedea da 1. loteko (erdi-tentsioa) eta 2. loteko (behe-tentsioa) Hornidura Puntuaren Kode Unibertsal guztiei (HPKU) dagokien energia % 100 berriztagarriaren hornikuntza, hornidura-puntuek sare elektrikoetara sartzeko banatzailearekin dituzten kontratuak barne.

Energia elektrikoaren hornidura eta sareetara sartzeko tarifak batera kontratutako dira, eta merkaturatzailea Eusko Legebiltzarraren izenean arituko da enpresa banatzailearekin horiek kontratatzeko.

Hornitutako elektrizitatearen jatorria % 100 berriztagarria dela bermatu beharko da eta hori merkaturatzen duen enpresak ingurumen-inpaktu ertainari dagokion "A" sailkapena izan beharko du Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalaren (MLBN) erabaki honetan jasota dagoen zerrendan: Elektrizitatearen etiketatzeari buruzko erabakia, 2020. urtean ekoitzitako energiari dagokiona. Espediente-zenbakia: GDO/DE/001/21.

Enpresek A sailkapen hori eduki eta mantendu beharko dute kontratua indarrean dagoen bitartean.

Merkaturatzailea solaskide gisa arituko da enpresa banatzailearen aurrean, eta hura arduratuko da, Legebiltzarraren izenean, hornidura izapidetzeaz banatzailearen aurrean, kontratuak iraun bitartean izan daitezkeen beste gestio batzuen artean, eta zuzkidura hori gauzatzeko jarduketa tekniko eta administratibo guztiak egin beharko ditu, prozesuan arazorik ez sortzeko adina denborarekin.

Halaber, bere kargu izango ditu kontratuaren indarraldian zehar egin beharko omen diren gestioak: eskabidea, instalazioa, mantentze-lanak, egiaztapenak, ikuskapenak eta izan daitezkeen matxurak eta akatsak neurketa-ekipoei dagokienez, zuzkiduraren kalitateak, kontratutako potentzien aldaketak, edo hornidurarekin eta kontsumitutako energiaren neurketarekin zerikusia duten beste batzuk.

Merkaturatzaileak konpromisoa hartzen du enpresa banatzaileari kalitateari buruzko ahalik eta mailarik handienak exijitzeko eta horniduraren neurketarako eta kalitate-kontrolerako teknologia aurreratuak sartzea sustatzeko.

2 LOTEEN DESKRIBAPENA

Kontratu honen xede diren instalazioak bi lotetan banatzen dira, kontratutako potentziaren eta horniduraren tentsioaren arabera:

1. lotea: Goi-tentsioko hornidura 1
2. lotea: Behe-tentsioko 3 hornidura

LOTEA	HORNIDURA Suministro	Bereizkeriarako sarbidea. Segmentua	HPKU
1. LOTEA	Legebiltzarra	6.2 TD 4	ES 0021 0000 0006 5101 AP1P
2. LOTEA	Sorospena	3.0TD TGPAT 2	ES 0021 00001094 2262 CD
	SAko garajea	2.0TD TD3P 1	ES 0021 0000 0013 5994 AS
	GAko garajea	2.0TD TD3P 1	ES 0021 0000 0012 5753 HD

3 HORNIDURAREN IRISMENA

Apartatu honetan jasotako hornidura-puntu guztientzat 2022. urteko lehenengo seihilekorako kontratatu beharko litzatekeen bolumena honako hau da, lote bakoitzaren arabera:

HORNIDURA Suministro	KONTSUMOA Urteko kontsumoa kWh/urteko	4 HILABETETARAKO 4 meses kWh
1. lotea	1.500.000	494.000
2. lotea	14.000	4.800

Kopuru horiek orientagarriak dira eta aldatu egin daitezke zenbait faktoreren arabera. Baldintza teknikoen agiri honetako A eta B eranskinetan dago azken urteetako kontsumoei buruzko informazio zehatzagoa.

Energia-eskaintzek kontuan hartuko dituzte indarrean dauden arauek prezioak eratzeko agintzen dituzten kontzeptuak, zeinen arabera ezartzen baitira sistema elektrikoaren sarbide-bidesariak (3/2020 Zirkularra, urtarrilaren 15ekoa, elektrizitatearen garraio- eta banaketa-bidesariak kalkulatzeko metodologia ezartzen duena) eta zordunketak (148/2021 Errege Dekretua, martxoaren 9koa, Sistema Elektrikoaren Zordunketak Kalkulatzeko Metodologia ezartzen duena), bakoitza bere aldetik, dagokien moduan, potentzia-terminoarentzat zein energia-terminoarentzat. Halaber, jasoko dituzte zerga elektrikoa eta balio erantsiaren zerga, eta kontagailuaren alokairuarena, baldintza administratiboen agiriaren barruan jasotako formatuaren arabera.

Prezioak eratzeko sisteman legegintza-aldaketak egiten badira, berehala jasoko dira eskainitako prezioetan, gorantz zein beherantz. Hori dela eta, eskaintzaren banakako prezio bakoitzaren banakapena aurkeztu beharko dute, baita epealdi bakoitzarena ere, baldintza-agiri honen 7. apartatuan adierazitakoaren arabera.

Nolanahi ere, aldaketa horrek eragiten dion lehenengo fakturaren aurretik abisatu beharko da, eta arrazoia (araudia) eta aldatzen diren zenbatekoak azaldu beharko dira, eskaintzan aurkeztutako prezioak banatzeko eredu berari jarraituz.

Potentzia-soberakinak fakturatuko dira 3/2020 Zirkularrean ezarritakoaren arabera, eta energia erreaktiboaren, kapazitiboaren eta induktiboaren kasuan, 1164/2001 Errege Dekretuaren eta ondorengo aldaketen arabera, eta 3/2020 Zirkularraren arabera edo, hala dagokionean, horiek arautuko dituzten hurrengo arauen arabera ere.

Neurketa elektrikoak hartzeko garaian akatsen bat gertatuko balitz, energia elektrikoaren kontsumo eta igarotzeen neurketa-puntuei buruzko Erregelamenduan manatzen dena bete beharko da.

Zerbitzuaren kalitateari buruzko ez betetzeen kasuan, merkaturatzaileak erreklamazioa egingo dio banatzaileari, eta Eusko Legebiltzarrari ordainduko dizkio penalizazioak aplikatuz lortutako beherapenen zenbateko osoak.

Hala badagokio, eta kontratua indarrean dagoen bitartean kontzeptu horietakoren bati eragiten dion beste edozein arau-aldaketa gertatzen bada, indarrean dauden prezioetara aldatu ahal izango da, baina aldez aurretik Legebiltzarrari horren berri eman beharko zaio, arestian deskribatutakoaren arabera.

3.1 1. LOTEA: Goi-tentsioko hornidura

Egoitzaren eraikinak goi-tentsioko instalazioa du. Neurketa elektrikoa du datuen bidalketarekin, eta kontratazio askeko sisteman, goi-tentsioan, kontratatu ahal izateko beharrezkoa den Industria, Merkataritza eta Turismoko Ministerioaren araudia betetzen du.

Hornidura goi-tentsiokoa da, 30 kV-koa. Sei epealdiko tarifa kontratatuko da: 6.2 TD

Aurkeztuko den eskaintzak elektrizitatearen fakturan eragiten duten kontzeptu guztiak jasoko ditu, hau da, potentzia-terminoa, energia-terminoa, kontagailuen alokairua eta elektrizitate-hornidurari ezartzekoak diren araututako zerga eta kontzeptu guztiak.

Hornitutako energia % 100ean iturri berriztagarrietatik lortutakoa izan beharko da.

3.1.1 Goi-tentsioko horniduraren ezaugarriak

Enpresa banatzailea: i-DE, Redes Eléctricas Inteligentes, S.A.U.

Tentsioa:	30.000 V.
Potentzia onartua:	824 kW.
HPKU	ES 0021 0000 0006 5101 AP1P
Sarbide-tarifa	6.2TD

Gaur egun, 6 aldi horietako bakoitzean kontratutako potentziak hauek dira:

P1=P2=P3=P4=P5= 425 kW

P6= 451 kW

A eranskinean daude azken urteetako aldi eta hilabete bakoitzari dagozkien kontsumoak. 2020ko kontsumoei dagokienez, kontuan hartu behar da jarduera parlamentarioa gutxitu egin zela, COVID-19aren eraginez.

Instituzioaren kontsumo elektrikoa jarduera parlamentarioaren eta faktore klimatiko aldakorren araberakoa denez gero, aurreikusten da kontsumoaren aldaketa-maila % 10 gehiago/gutxiagokoa izan daitekeela kontratu honek dirauen aldirako aurreikusitako kontsumo guztiari dagokionez. Merkaturatzaileak hornidura bermatu beharko du, kontsumoak adierazitako kopuruekin bat ez badatoz ere.

3.2 2. LOTEA: Behe-tentsioko hornidura

Legebiltzarrak duen 3 horniduretako behe-tentsioko hornidura sartuko da.

- ✓ Legebiltzarreko egoitzako sorospen-hornidura
- ✓ San Antonio 2ko garajeko hornidura arrunta
- ✓ Gaztelako Atea 5eko garajeko hornidura arrunta

Legebiltzarrak % 100ean iturri berriztagarrietatik lortutako energia kontratatuko du hornidura guzti horietarako.

Hauek dira 3 hornidura horien ezaugarriak eta horietako bakoitzerako kontratatutako potentziak:

Hornidura	HPKU	Sarbide-tarifa	P1	P2	P3
Sorospena	ES 0021 00001094 2262 CD	3.0TD	100	100	100
SAko garajea	ES 0021 0000 0013 5994 AS	2.0 TD	13,2	13,2	
GAko garajea	ES 0021 0000 0012 5753 HD	2.0 TD	13,2	13,2	

B eranskinean daude azken urteetako aldi eta hilabete bakoitzari dagozkien kontsumoak. 2020ko kontsumoei dagokienez, kontuan hartu behar da jarduera parlamentarioa gutxitu egin zela, COVID-19aren eraginez.

4 KONTRATUAREN EPEAK

Kontratuaren iraupena, gutxi gorabehera, 4 hilabetekoa izango da, kontratua sinatzen denetik 2022ko ekainaren 30era arte.

Merkaturatzaileak 5 eguneko epea izango du kontratuko hornidura bere gain hartzeko, kontratua sinatzen denetik hasita, eta sareetara sartzeko kontratuaren aldaketa formalizatzeko 21 egun, gehienera.

5 HORNITU BEHARREKO ENERGIA ETA OINARRIZKO LIZITAZIO-AURREKONTUA

Agiri honetako A eta B eranskinetan jasotzen diren azken 4 urteetan 1. eta 2. loteetako energia-kontsumoen bilakaera, eta kontsumo horretan eragina izan dezaketen gorabeherak oinarri hartuta, agiri honetan aurreikusitako kontratazio-eperako kontsumoaren kalkulua zehaztu da.

Alde batetik, 1. lotearen kontsumoa 50.000 kWh murriztu ahal izango da 50 kW-ko planta fotovoltaikoa instalatzeagatik. 2. lotearen kontsumoa handitu ahal izango da ibilgailu elektrikoen 6 kargagailu instalatzearen ondorioz, 3 garaje bakoitzean.

Aurreikusitako kontsumoak orientagarriak dira, eta benetako kontsumoak hornidura-beharren ondoriozkoak izango dira.

5.1 1. LOTEA

Kontuan hartutako historikoaren arabera eta izan diren gorabeheren eta etorkizuneko aurreikuspenen arabera, 495.000 kWh/urteko kontsumoa kalkulatzen da 2022 urterako, ± % 10eko desbideraketarekin,

Ikusitako historiaren eta aipatutako gorabeheren eta etorkizuneko aurreikuspenen arabera, kontratu honen eperako 495.000 kWh-ko energia-kontsumoa aurreikusten da, ± % 10eko klimaren gorabeherak eta jarduera parlamentarioaren aurreikuspena, instalazio berriak, efizientziaren hobekuntzak eta abar direla-eta.

Aurreikuspen horien arabera, 151.555,75 euroko gehienezko lizitazio-aurrekontua kalkulatzen da (BEZik gabe) 2022 urterako. % 21eko BEZarekin, kopuru osoa 183.382,46 euro inguru izango litzateke.

5.2 2. LOTEA

Kontuan hartutako historikoaren arabera, 4.800 kWh/urteko kontsumoa kalkulatzen da, ± % 10eko desbideraketarekin, klimaren gorabeherak, jarduera parlamentarioaren aurreikuspena, instalazio berriak, efizientziaren hobekuntzak eta abar direla-eta.

Aurreikuspen horien arabera, lehiaketaren eperako kalkulatzen den gehienezko lizitazio-aurrekontua 3.820,58 € dira (BEZik gabe) eta 4.622,91 € % 21eko BEZarekin, 2.0TD eta 3.0TD-ko 2. Lote honetarako.

5.3 LEHIAKETA, GUZTIRA

Beraz, lehiaketaren guztizko zenbatekoa, bi loteen zenbatekoak batuta, 188.005,37 € da (BEZa barne).

6 EMAN BEHARREKO BESTE ZERBITZU BATZUK

Bi loteetako bakoitzeko hornidura elektrikoaz gain, enpresa merkaturatzaileek honako zerbitzu hauek emateko konpromisoa hartu beharko dute:

6.1 Kontratuaren arduraduna

Kontratu bakoitzaren esleipendunak kontu-kudeatzaile bakarra izendatuko du; kontu-kudeatzailea Legebiltzarraren aurrean arduratuko da kontratua gauzatzeaz eta datu operatiboen tratamenduaz. Harremanetarako telefono-zenbaki bat (ez da inola ere *call-center* batekoa izango) eta posta elektronikoko helbide bat eman beharko dira kontu-kudeatzailearekin zuzenean harremanetan jarri ahal izateko.

6.2 Hirugarrenak sareetara sartzeko kontratuak

Kontratuaren merkaturatzaile esleipendunak tramiteak egin beharko ditu banatzailearen aurrean, hornidura-puntu bakoitzean sarerako sarbidea bermatzeko, prozesuko arazoak minimizatzeko behar den aurrerapenaz.

Enpresa esleipendunak HSS kontratua (hirugarrenen sarbidea sareetara) tramitatu beharko du, eta aldaketa hori eskatu beharko dio banatzaileari, kontratuaren esleipena jakinarazten zaionetik hasita ahalik eta eperik laburrenean.

Sartzen den merkaturatzaileak egingo ditu ahalik eta diligentzia handienarekin merkaturatzailea aldatzeko gestioak. Eusko Legebiltzarrari egotzi ezin zaizkion aldaketetan atzerapenik badago, horniduraren lehenengo hilabete osoko fakturaren zenbatekoaren % 1eko penalizazioa aplikatuko da.

Printzipioz behintzat, merkaturatzailea aldatzeagatik ez dira puntuetako potentziak aldatuko. Halarik ere, hurrengo apartatuetan azaltzen denez bildutako informazioaren arabera, aldatu ahal izango litzateke, gorantz zein beherantz.

Aldaketa horiek eragindako kostuak kontratu honen helmenetik kanpo geratzen dira eta, kasu bakoitzean, une horretan indarrean dauden tarifen arabera fakturatuko dira.

6.3 Kontsumoak eta kostuak web bidez eskuratzea.

Hileko kostuak eta kontsumoak web bidez eskuratzeko moduan egon beharko dira. Kontratuaren esleipendunak honako datu hauek eman beharko ditu, gutxienez, web bidezko plataforma batean sartuta: fakturazioa, energia aktiboaren eta erreaktiboaren kontsumoak, aldi bakoitzeko orduko eta ordu laurdeneko kontsumoak eta maximetroaren balioak.

Irakurketa horiek eskuratu ahal izateko ezinbestekoa bada dauden neurketa-elementuren bat aldatzea, Legebiltzarrari jakinaraziko zaio eta merkaturatzailea arituko da Legebiltzarraren solaskide gisa banatzailearen aurrean, kontsumo horiek eskuratu ahal izateko behar diren aldaketa egiteko.

6.4 Araututako kontzeptuak aldatzeari buruzko informazioa

Kontratuak irauten duen bitartean ezin izango dira energiaren prezioak (€/kWh) berraztertu, sektore elektrikoaren arautegi espezifikoan legegintza-aldaketak egiten direnean izan ezik.

Aldaketa horiek eskainitako prezioei aplikatzekoak diren heinean, berehala jasoko dira eskainitako prezioetan, beherantz zein gorantz, eta Eusko Legebiltzarrari jakinaraziko zaio aldaketa horrek eragindako lehen faktura jaso aurretiko behar bezalako aurrerapenarekin.

Merkaturatzaileak preziotik ondorioztatzen diren aldaketak Legebiltzarrari jakinarazi beharko dizkio, behar bezala justifikatuta, aldaketa horiek eragindako lehen faktura igorri aurretik. Aldaketa hori argitu arte, Legebiltzarrak beretzat gordetzen du fakturaren ordainketa atxikitzeko eskubidea.

7 PROPOSAMENAK AURKEZTEA

Eskaintza lizitazioaren iragarkian eskuragarri dagoen Euskadiko Kontratazio Plataformaren bidez aurkeztuko beharko da.

Komunikazio guztiak, eta interesatuekin egin beharreko gainerako izapideen jarduketak ere, aipatu plataformaren bidez egingo dira.

Proposamen ekonomikoak **bi dokumentu** izango ditu:

7.1 1. dokumentua: prezioak.

Honako kontzeptu hauek bereizita adieraziko dira, tarifa eta aldi bakoitzerako, dagokion horniduraren tarifaren arabera, 6 dezimalekin.

Eskainitako prezioak honela banakatuko dira:

- Potentzia: Potentziaren terminoa: garraio- eta banaketa-bidesariak kW-ko (€/kW eguneko)
  Potentziaren terminoa: zordunketak kW-ko (€/kW eguneko)
  Potentziaren terminoa: potentzia-terminoaren marjina (€/kW eguneko)
  POTENTZIAREN GUZTIZKO PREZIOA: €/kW.eguneko (aurreko 3 kontzeptuen batura)

- Energia: Energiaren terminoa: garraio- eta banaketa-bidesariak kWh-ko (€/kWh eta aldia)

Energiaren terminoa: energia eta ahalmenagatiko zordunketak kWh-ko (€/kWh eta aldia)

Energiaren terminoa, kontsumitutako kWh-ko prezioa (€/kWh)

ENERGIAREN GUZTIZKO PREZIOA: €/ kWh (aurreko 3 kontzeptuen batura)

- Zerga elektrikoa (%)
- Neurketa-ekipoaren alokairua (€/eguneko)

Une bakoitzean indarrean dauden bidesarien eta zordunketen zenbatekoak aplikatu beharko dira. Merkaturatzaileak, hala dagokionean, energiaren prezioan (€/kWh) eta potentziaren marjinakoetan (€/kW.eguneko) aplikatuko ditu bere marjinak.

Aldi bakoitzerako Potentziaren Guztizko Prezioa eta Energiaren Guztizko Prezioa balioak erabiliko dira lote bakoitzaren zenbateko osoa kalkulatzeko (2. agiria).

7.2 2. dokumentua: lote bakoitzaren guztizko zenbatekoaren kalkulua.

Eskainitako balio osoekin kalkulatuko da eskaintzaren prezioa. Dagokion lotearen eranskineko kalkulu-orria beteko da eta eskaintzaren pdf artxiboa sortuko da (2. agiria).

Merkaturatzaile bakoitzak eskaintzen dituen zenbatekoak aplikatuko zaizkio aldirako proposatutako batez besteko kontsumo-aurreikuspenari, eta era horretan lortuko da bi loteetako bakoitzarentzako prezio bat.

- 1. lotearen kasuan, 1. lotearen guztizko prezioa lortuko da aldi bakoitzerako kontratutako potentziei eta aurreikusitako energia-kontsumoari dagozkien prezioak aplikatuz, baldintza administratiboen agiriko eranskinean bildutako balioen arabera, kontagailuaren alokairuari dagozkion zenbatekoak eta zergak gehituko zaizkiolarik. Era horretan lortuko da 1. lotearen zenbateko totala.

- 2. lotearen kasuan, modu berean kalkulatuko dira, eta dagokion eranskinaren arabera, 3 hornidurei dagozkien 3 zenbatekoak, eta 1 Guztira izena emango zaio SAko garajeari dagokionari, 2 Guztira GAko garajeari dagokionari, eta 3 Guztira sorospeneko hornidurarenari. Hiru zenbateko oso horiek lortu ondoren, batu egingo dira 2. lotearen guztizko prezioa lortzeko.

Espresek lehiatu nahi duten loteetarako eskaintza aurkeztu beharko dute. Bi loteetariko baterako izan daiteke, edo bietarako. Nolanahi ere, bereizita baloratuko dira.

Ez da kontsumorako konpromisorik egongo, ezta aurreikusitako kontsumoaren eta benetakoaren arteko aldeentzako penalizaziorik ere. Merkaturatzaileak benetan emandako hornidurek bakarrik sortuko dute ordaintzeko betebeharra.

Nolanahi ere, esleipendunek aurkeztutako eskaintzek 30 egun balioduneko indarraldia izango dute, eskaintzak aurkezteko epea amaitzen denetik zenbatzen hasita, eta epe horretan ezin izango dira erretiratu.

Kontratua ekonomikoki onuragarriena den eskaintzari esleituko zaio, baldintza-agiri honetan aurreikusitako moduan.

Kontratuak irauten duen bitartean ezin izango dira energiaren prezioak berraztertu, sektore elektrikoaren arautegi espezifikoan legegintza-aldaketak egiten direnean izan ezik. Aldaketa horiek eskainitako prezioei aplikatzekoak diren heinean, berehala jasoko dira eskainitako kontzeptuetan: bidesariak, zordunketak eta beste batzuk, beherantz zein gorantz, aurretik adierazitako baldintzetan.

8 ESKAINTZEN BALORAZIOA

8.1 1. LOTEA

1. loteari dagokion Excel orrian adierazita daude aldi bakoitzerako aurreikusitako balioak (kWh, gorriz) eta lizitatzaileak dagozkion laukiak (urdinez) bete beharko ditu. Era horretan lortuko da eskaintzaren guztizko prezioa (2. agiria).

Esleipenaren irizpide bakarra 1. LOTEAREN GUZTIZKO prezioa izango da. Eskaintzarik merkeena izango da lote bakoitzaren esleipenduna.

Adibide gisa, erreferentziazko prezioekin osatutako taula hau jasotzen da; taulak orria nola bete azaltzeko baino ez du balio:

1. LOTEA
MERKATURATZAILEA MERKATURATZAILEAREN IZENA
6.2 TD TARIFA
kalkulua egiteko adiibidea

			P1	P2	P3	P4	P5	P6
	Potentzia kontratatua	kW	425	425	425	425	425	451
	kalkulatutako kWh-ak	kWh	160.000	200.000	150.000	200.000	230.000	560.000
	Kalkulatutako kWh-en GUZTIZKOA	1.500.000						
	egun-kopurua	365						
POTENTZIA	POTENTZIAREN GUZTIZKO PREZIOA 1. agiriaren arabera	€/ kW eguneko	0,061842	0,061842	0,040506	0,038293	0,021258	0,021258
	Bidesarien zenbatekoa	€	9.593,31	9.593,31	6.283,46	5.940,20	3.297,58	3.499,31
	GUZTIZKOAK	€	9.593,31	9.593,31	6.283,46	5.940,20	3.297,58	3.499,31
	POTENTZIAREN GUZTIZKOA	38.207,16	€					
ENERGIA	ENERGIAREN GUZTIZKO PREZIOA 1. agiriaren arabera	€/ kWh	0,100004	0,092681	0,080642	0,074441	0,071013	0,063759
	Kontsumoaren zenbatekoa	€	16.000,69	18.536,20	12.096,30	14.888,20	16.332,99	35.705,04
	GUZTIZKOAK	€	16.000,69	18.536,20	12.096,30	14.888,20	16.332,99	35.705,04
	ENERGIAREN GUZTIZKOA	113.559,42	€					
ZERGA ELEKTRIKOA	Indarreko zerga	%	0,500000					
	ZERGAREN GUZTIZKOA	758,83	€					
KONTAGAILUA	Alokairua	€/eguneko	2,116000					
	KONTAGAILUAREN GUZTIZK	772,34	€					
1. LOTERAKO KALKULATUTAKO PREZIOA			153.297,75	€ (BEZik gabe)				
	BEZ	%	21,00					
	BEZ OSOA	32.192,53	€					
1. LOTEAREN GUZTIZKOA			185.490,27	€ (BEZa barne)				

Merkaturatzaileen artean konparatu beharrezko zenbatekoa 1. Lotearen Guztizkoan lortzen dena da.

8.2 2. LOTEA

Esleipenaren irizpide bakarra horniduraren prezio osoa izango da. Eskaintzarik merkeena izango da esleipenduna.

Kasu honetan, 1. lotean azaldutako modu berean jokatu da 3 horniduretako bakoitzerako, eta, azkenik, zenbateko osoak batuko dira, tarifa-mota bakoitzari dagokion BEZa barne. 2. LOTEA GUZTIRA balioa lortuko da, horniduren 3 guztizkoen batura izango dena.

2. LOTEA
MERKATURATZAILEA MERKATURATZAILEAREN IZENA

2.0 TD TARIFA			SA GARAJE A				GA GARAJEA		
			P1	P2	P3		P1	P2	P3
Potentzia kontratatua	kW		13,2	13,2		kW	13,2	13,2	
Kalkulatutako kWh-ak	kWh		3.500	3.500	5.000	kWh	1.000	1.200	1.800
Kalkulatutako kWh-en GU		12.000				4.000			
egun-kopurua		365				365			
POTENTZIA	POTENTZIAREN GUZTIZKO PREZIOA 1. agiriaren arabera	€/ kW eguneko	0,108331	0,061842		POTENTZIAREN GUZTIZKO PREZIOA 1. agiriaren arabera	€/ kW eguneko	0,108331	0,061842
	GUZTIZKOAK	€	521,94	297,96		GUZTIZKOAK	521,94	297,96	
	POTENTZIAREN GUZTIZ	819,90	€			POTENTZIAREN GUZ	819,90	€	
ENERGIA	ENERGIAREN GUZTIZKO PREZIOA 1. agiriaren arabera	€/ kWh	0,100004	0,092681	0,080642	POTENTZIAREN GUZTIZKO PREZIOA 1. agiriaren arabera	€/ kWh	0,100004	0,092681	0,080642
	GUZTIZKOAK	€	350,02	324,38	403,21		€	100,00	111,22	145,16
	ENERGIAREN GUZTIZKO	1.077,61	€				ENERGIAREN GUZTI	356,38	€	
ZERGA ELEKTRIKOA	Indarreko zerga	%	0,500000				Indarreko zerga	0,500000	%	
	ZERGAREN GUZTIZKOA	9,49	€				ZERGAREN GUZTIZK	5,88	€	
KONTAGAILUA	Alokairua	€/eguneko	2,116000				Alokairua	2,116000		
	KONTAGAILUAREN GU	772,34	€				KONTAGAILUAREN	772,34	€	
SA GARAJE - 1. GUZTIZKOA		€ BEZik gabe)	2.679,33			GA GARAJEA - 2. GUZTIZKOA		€ (BEZik gabe)	1.954,49	
	BEZ	%	21,00				BEZ	%	21,00	
	BEZ OSOA	562,66	€				BEZ OSOA	410,44	€	
1. GUZTIZKOA		€ (BEZa barne)	3.241,99	€		2. GUZTIZKOA		€ (BEZa barne)	2.364,94	€

3.0 TD TARIFA			SOROSPEN-HORNIDURA					
			P1	P2	P3	P4	P5	P6
Potentzia kontratatua	kW		100	100	100	100	100	100
Kalkulatutako kWh-ak	kWh		10	10	10	10	4	4
Kalkulatutako kWh-en GUZTIZKOA		48						
egun-kopurua		365						
POTENTZIA	POTENTZIAREN	€/ kW eguneko	0,061842	0,061842	0,040506	0,038293	0,021258	0,021258
	1. agiriaren arabera	€	1.128,62	1.128,62	739,23	698,85	387,95	387,95
	POTENTZIAREN GUZTIZ	4.471,23	€					
ENERGIA	ENERGIAREN GUZTIZKO PREZIOA 1.agiriaren arabera	€/ kWh	0,100004	0,092681	0,080642	0,074441	0,071013	0,063759
	GUZTIZKOAK	€	1,00	0,93	0,81	0,74	0,28	0,26
	ENERGIAREN GUZTIZKO	4,02	€					
ZERGA ELEKTRIKOA	Indarreko zerga	%	0,500000					
	ZERGAREN GUZTIZKOA	22,38	€					
KONTAGAILUA	Alokairua	€/eguneko	2,116000					
	KONTAGAILUAREN GU	772,34	€					
SOROSPEN-HORNIDURA-3. GUZTIZKOA			5.269,96	€ (BEZik gabe)				
	BEZ	%						
	BEZ OSOA	0,00	€					
3. GUZTIZKOA		€ (IVA incluido)	5.269,96	€ (BEZa barne)				

2. LOTEAREN GUZTIZKOA		10.876,89 € (BEZa barne)
SA GARAJEA-1. Guztizkoa	3.241,99	
GA GARAJEA.2. Guztizkoa	2.364,94	
Sorospena-3. Guztizkoa	5.269,96	

Kasu honetan, eskaintzen artean konparatu beharreko zenbatekoa 2. LOTEA GUZTIRA gisa lortutakoa izango da.

9 INGURUMEN-BALDINTZA KONTRATUA EGIKARITZEKO

9.1 Energiaren jatorriaren bermea

Kontratuan sartutako puntuetan hornitutako elektrizitatearen % 100 energia-iturri berriztagarrietatik hartutakoa izan beharko da. Horretarako, merkaturatzaileek bermatu beharko dute, kontratu hau indarrean dagoen aldian, merkaturatzen duten energiaren % 100 energia-iturri berriztagarrietatik datorrela.

Enpresaren merkaturatze-nahasketari dagokion iturri berriztagarrietatik lortutako energiaren portzentajea % 100koa izan beharko da; beraz, "A" sailkapena eduki beharko du.

Hornidurari buruzko baldintza berezi hori betetzen dela frogatzeko, ziurtagiri edo dokumentu bat aurkeztutako da, zeinaz egiaztatutako baita, Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalaren (MLBN) web-orrian argitaratutako Jatorri-Bermeen eta Elektrizitatearen Etiketatze-Sistemari buruzko azken urteko txosteneko "Enpresa bakoitzaren merkaturatze-nahasketa" delakoaren arabera, enpresak "A" sailkapen hori duela, hain zuzen.

10 HILEKO FAKTURAZIOA ETA TXOSTENAK

10.1 Hileko faktura

Hornidura bakoitzaren banakako fakturak aurkeztuko dira hilero. Fakturen zenbatekoa fakturazio-hilean izandako kontsumo guztiari dagokiona izango da.

Fakturek argi eta garbi jaso beharko dituzte honako datu hauek, gutxienez:

- ✓ Fakturaren zenbakia eta data
- ✓ Titularra eta Eusko Legebiltzarren IFK
- ✓ Fakturak bidaltzeko helbidea
- ✓ Hornidura-puntuaren helbidea, HPKU eta kontratuaren kodea.
- ✓ Irakurketa-datak (data batetik, data batera) Hile osokoak izan beharko dira.
- ✓ Energia aktiboaren eta erreaktiboaren kontsumoak, aldika
- ✓ Erregistratutako potentzia maximoak, aldika.
- ✓ Prezioak aldika:
    - o Potentziaren terminoaren kostua (bidesariak eta zordunketak) €/kW.eguneko
    - o Energiaren terminoaren kostua: kontratuaren arabera indarrean dagoen €/kWh
- ✓ Kontagailuaren alokairua €/eguneko
- ✓ Potentziaren edo energia erreaktibo kapazitiboaren edo induktiboaren soberakinen kostua
- ✓ Zerga elektrikoa
- ✓ BEZa
- ✓ Fakturaren guztizkoa

Horiez gain, fakturan jasoko dira kontagailuen irakurketak fakturatutako epe bakoitzean, aurrekoan eta egungoan, hilabeteari edo fakturatutako epealdiari dagokion kontsumoa, energia erreaktiboaren kontsumoak eta aldi bakoitzean eskatutako potentzia maximoa.

10.2 Hileko txostena

Gainera, merkaturatzaileak fitxategi bat bidali beharko du, erabilera komuneko kalkulu-orriaren formatuan, fakturatutako aldiko hornidura-puntu bakoitzari buruzko informazio hau laburbiltzen duena, gutxienez:

- Horniduraren identifikazioa
- HPKU
- Fakturako irakurketaren hasiera eta bukaera
- Aldi bakoitzerako kontratutako potentzia
- Aldi bakoitzean eskatutako potentzia maximoa
- Aldi bakoitzeko potentzia-soberakina
- Aldi bakoitzeko energia aktiboaren kontsumoa
- Aldi bakoitzeko energia erreaktiboaren (induktiboaren eta kapazitiboaren) kontsumoa
- Aldi bakoitzean kontsumitutako energia aktiboaren kostua
- Aldi bakoitzean kontsumitutako energia erreaktiboaren kostua

Fitxategi honetan jaso ahalko da merkaturatzaileak interesekotzat jotzen duen beste edozein datu, eta beste dokumentu batzuk erantsiz osatu ahal izango da.

11 PRESTAZIOAREN ORDAINKETA

Ordainketak Eusko Legebiltzarraren 2022. urteko aurrekontuko 0700/1000/22100 partidaren kargura egingo dira.

Aurreko puntuetan adierazitakoaren arabera beharrezko informazioa jaso eta kontratuaren arduradunek baliozkotu ondoren, organo parlamentarioei bidaliko zaie, onets dezaten. Onetsi ondoren, ordaindu ahal izango da.

Ordainketa 30 eguneko gehieneko epean egingo da.

A ERANSKINA
1. LOTEKO KONTSUMOAK
2016 – 2021

B ERANSKINA
2. LOTEKO KONTSUMOAK
2018 – 2021

EUSKO LEGEBILTZARRA
PARLAMENTO VASCO

PLIEGO DE CONDICIONES TÉCNICAS

SUMINISTRO DE ENERGIA ELÉCTRICA A LOS EDIFICIOS Y GARAJES DEL PARLAMENTO VASCO
(4 meses)

EXP.: ELPV-500-22

Becerro de Bengoa • 01005 Vitoria – Gasteiz
Tel.: 945 00 40 00 • Fax: 945 13 54 06 • www.legebiltzarra.eus

PLIEGO DE CONDICIONES TÉCNICAS

SUMINISTRO DE ENERGIA ELÉCTRICA A LOS EDIFICIOS Y GARAJES DEL PARLAMENTO VASCO

1 OBJETO 1

2 DESCRIPCIÓN DE LOS LOTES 2

3 ALCANCE DEL SUMINISTRO 2

3.1 LOTE 1: SUMINISTRO EN ALTA TENSIÓN 3
3.2 LOTE 2: SUMINISTRO EN BAJA TENSIÓN 4

4 PLAZOS DEL CONTRATO 5

5 ENERGIA A SUMINISTRAR Y PRESUPUESTO BASE DE LICITACIÓN 5

5.1 LOTE 1 5
5.2 LOTE 2 5
5.3 TOTAL DEL CONCURSO 6

6 OTROS SERVICIOS REQUERIDOS 6

6.1 RESPONSABLE DEL CONTRATO 6
6.2 CONTRATOS DE ACCESO DE TERCEROS A REDES 6
6.3 ACCESO A CONSUMOS Y COSTES VÍA WEB. 6
6.4 INFORMACIÓN DE CAMBIO DE CONCEPTOS REGULADOS 7

7 PRESENTACIÓN DE LAS PROPUESTAS 7

7.1 DOCUMENTO 1: PRECIOS. 7
7.2 DOCUMENTO 2: CÁLCULO DEL IMPORTE TOTAL DE CADA LOTE. 8

8 VALORACIÓN DE LAS OFERTAS 9

8.1 LOTE 1 9
8.2 LOTE 2 10

9 CONDICIÓN MEDIOAMBIENTAL PARA LA EJECUCIÓN DEL CONTRATO 11

9.1 GARANTÍA DE ORIGEN DE LA ENERGÍA 11

10 FACTURACIÓN E INFORMES MENSUALES 11

10.1 FACTURA MENSUAL 11
10.2 INFORME MENSUAL 12

11 ABONO DE LA PRESTACIÓN 12

ANEXO A: CONSUMOS LOTE 1
ANEXO B: CONSUMOS LOTE 2

1 OBJETO

El presente pliego define las condiciones técnicas que regularán, junto al pliego de cláusulas administrativas, la contratación del suministro de energía eléctrica en alta y baja tensión para los edificios y garajes titularidad del Parlamento Vasco durante el plazo que transcurra entre la adjudicación del contrato y el 30 de junio de 2022 (4 meses aproximadamente).

Constituye el objeto del presente contrato el **suministro de energía 100% renovable** correspondiente a todos los CUPS de los lotes 1 (media tensión) y 2 (baja tensión), incluyendo los contratos de acceso a redes eléctricas que los puntos de suministro tienen con la distribuidora.

La contratación del suministro de energía eléctrica y las tarifas de acceso a redes será conjunta, actuando la comercializadora en nombre del Parlamento Vasco para su contratación con la empresa distribuidora.

Se deberá garantizar la procedencia 100% renovable de la electricidad suministrada que deberá ser comercializada por una empresa con la clasificación "A", correspondiente al impacto ambiental medio, en el listado recogido en el "Acuerdo sobre el etiquetado de la electricidad relativo a la energía producida en el año 2020 Expediente nº: GDO/DE/001/21, de la Comisión Nacional de los Mercados y la Competencia (CNMC).

Las empresas deberán disponer de dicha clasificación A y deberá mantenerla durante el tiempo de vigencia del contrato.

La comercializadora actuará como interlocutor ante la empresa distribuidora, y se encargará, entre otras gestiones que puedan ocurrir durante la duración del contrato, de tramitar, en nombre del Parlamento, la prestación del suministro ante la distribuidora, debiendo llevar todas las actuaciones técnicas y administrativas para su provisión, con el tiempo suficiente para que no se generen problemas en el proceso.

También deberá realizar las gestiones necesarias que puedan surgir durante la vigencia del contrato correspondiente, para la solicitud, instalación, mantenimiento, verificaciones, inspecciones y posibles averías y errores de los equipos de medición, calidades del suministro, modificaciones de potencias contratadas, u otras relacionadas con el suministro y medición de la energía consumida.

La comercializadora se compromete a exigir a la empresa distribuidora los máximos niveles posibles de calidad y a promover la incorporación de tecnologías avanzadas en la medición y el control de calidad del suministro.

2 DESCRIPCIÓN DE LOS LOTES

Las instalaciones objeto de este contrato se dividen en dos lotes según la potencia de contrato y la tensión de suministro:

Lote 1: 1 Suministro en alta tensión
Lote 2: 3 Suministros en baja tensión

LOTE	HORNIDURA Suministro	Acceso Discrimin. Segmento	CUPS
LOTE 1	Parlamento	6.2 TD 4	ES 0021 0000 0006 5101 AP1P
LOTE 2	Socorro	3.0TD TGPAT 2	ES 0021 00001094 2262 CD
	Garaje SA	2.0TD TD3P 1	ES 0021 0000 0013 5994 AS
	Garaje PC	2.0TD TD3P 1	ES 0021 0000 0012 5753 HD

3 ALCANCE DEL SUMINISTRO

El volumen total de contratación estimado para el conjunto de los puntos de suministro contemplados en este apartado para el total del año y para el primer semestre del año 2022, objeto de este contrato, es el siguiente, según cada uno de los dos lotes:

HORNIDURA Suministro	KONTSUMOA Consumo anual kWh/año	4 HILABETERAKO 4 meses kWh
Lote 1	1.500.000	494.000
Lote 2	14.000	4.800

Estas cifras deben entenderse como orientativas, pudiendo sufrir variación en función de diferentes factores. En los anexos A y B de este pliego técnico se dispone de información más detallada de los consumos de los últimos años.

Las ofertas de energía contemplarán todos los conceptos para la formación de los precios que se prescriben por la normativa en vigor, por la que se establecen los peajes de acceso (Circular 3/2020, de 15 de enero, por la que se establece la metodología para el cálculo de los peajes de transporte y distribución de electricidad) y cargos del sistema eléctrico (Real Decreto 148/2021, de 9 de marzo, por el que se establece la metodología de cálculo de los cargos del sistema eléctrico), de forma separada, según corresponda, tanto para el término de potencia como para el de energía. Incluirán, también, los impuestos: eléctrico y de valor añadido, y el del alquiler del contador, según el formato que se incluye dentro del pliego de condiciones administrativas.

